


Heri Aldizkaria

otomof

2001eko urria 71.alea

**Juanito
Mendiaraz**





Artisaua eta asmatzaillea


IRITZIZ-IRITZI: IKER ANTIA

ELKARRIZKETAK: MCREA CLARKE ETA MALGORZATA CZARKOWSKA

IZERDI PATSETAN: AITOR GONZALEZ



Teknologiaren gailurra



HEG ALDE AUTO

Mugitegi, 27 URRETXU

☎ 943 72 51 37 / 943 72 58 64





1953/54 ikasturtean La Salle ikastetxeko ikasleei ateratako argazkia.

1. ilaran: Barrena, Esnal, Gomez, Adrian, Mendi, Mendiguren, Otaegi, Azpillaga eta Osinalde.
 2. ilaran: Garmendia, Iturralde, Urrestilla, Azurmendi, Beltran, Arizkuren, Apaolaza, Ormazabal, Del Teso, Perez eta Irigoien.
 3. ilaran: Eguren, Unanue, Bastarrika, Ormazabal, Azurmendi, Luisito Vega, Olaizola, Etxaniz, Mendizabal, Ruiz eta Zaldua.
 4. ilaran: Zeberio, Zabaleta, Iturralde, Garcia, Mesonero, Osinalde, Kortaberria, Madina, Mendizabal, Ormazabal, Mendiola eta Albisua.
- Eserita: Andueza, Telleria, Quevedo, Irizar, Mendizabal, Pujana, Aparicio, Gomez eta Gonzalez.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775

Koordinatzailea: Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldua.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua:SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros


Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

Gaztetxoeren taldea bertso-eskolan

Azken urteotan Urretxu-Zumarragako Bertso-eskolan gazte talde bat soilik aritu bada ere, ikasturte honetan, Zintzo-Mintzoren laguntzaz, 8 eta 16 urte bitarteko gaztetxoentzako taldea osatzeko asmoa dute. Klaseak ostiraletan izango dira, arratsaldeko 6etatik 7:30etara, Urretxuko Kultur Etxean eta irakasleak Gorka Azkarate eta Antton eta Uxue Fernandez izango dira. Ikasturtea azaroaren 16an hasiko da eta izena emateko Zintzo-Mintzora deitu behar da, 943 72 57 75 telefonora. Matrikula hilean 1.000 pezetakoa izango da.

Bertsolari Txapelketa Nagusian parte hartzen ari diren Asier Otamendi eta Nerea Elustondo bertso-eskolan arituak dira.



Fernando Salegik irabazi zuen iazko buzkantza lehiaketa.



Buzkantza Lehiaketa

Igande honetan XVIII. Buzkantza Lehiaketa, Jose Maria Busca Isusiren omenezko XVI.a, izango da Zumarragako Euskadi enparantzan. Aurtengoan, lehenengoz, lehiaketan parte hartzen dutenek beraien buzkantzak saltzeko aukera izango dute. Partehartzaileek igandean goizeko 11ak baino lehen lehiaketarako bi kilo eta erakusteko bost kilo buzkantza aurkeztu beharko dituzte eta eguerdiko ordu-bata inguruan Aitor Gabilondo, Zumarragako alkatea, buru izango duen epaimahaiak saridunen izenak jakitera emango ditu. 12:30etan herri-kirol saioa izango da eta goizean zehar Euskadi enparantzan eskulanean erakusketa eta umeen tailerrak ere izango dira.

Asteburu Mikologikoa

Urriko hirugarren asteburuan Aldiri Kultur Elkarteak mikologia sailak urtero antolatzen duen Asteburu Mikologikoa izan zen. Urtero bezala, igandean perretxikoen erakusketa izan zen eta bertan bezperan antolatzaileek eta herriko perretxikozaleek bildutako perretxikoak izan ziren ikusgai. Aurtengo udazkeneko giroak ez du asko lagundu eta azken urteotan baino perretxiko mota gutxiago bildu zituzten. 203 espezie ezberdin bildu ziren eta Aranzadi Zientzia Elkarteak Lekuona jaunak espezie ezberdinak sailkatzen lagundu zuen. Horretaz gain, igandean erakusketara hurbildu zirenen jakinmina asetzen saiatu zen. Bestalde, Kabia jatetxeak perretxikoekin prestatutako hainbat plater egin zituen eta hauen errezetak azaldu zituen. Erakusketara hurbildu zirenek, urtero bezala, perretxiko-nahaski pintxoak dastatzeko aukera izan zuten.

Mineralogi eta paleontologi Astea

Aste honetan izaten ari da urtero Urretxuko Udalak, Aguado sendiaren laguntzaz, antolatzen duen Mineralogia eta Paleontologia astea. Aurtengoa hamaseigarren ekitaldia dugu eta urteroko legez, mineralogi txangoa aste honetako ekitaldien aurrekaria izan zen. Aurtengo txangoan, urriaren 20an, mineralzaleak Zaragozako Remolinos herriko gatz meategian izan dira mineralak biltzen. Aste honetan, berriz, mineralogia eta paleontologiaren erlazioa duten hainbat ekitaldi izan dira. Astelehenean, esaterako, Iñaki Carretero ipuin kontalariak lurra nola sortu zen azaldu zien herriko ikasleei. Dena den, ekitaldi nagusiak asteburu honetan izaten ari dira. Igandera bitartean Kultur Etxean urte guztian zabalik den museoko mineral eta fosilez gain, Bustarviejoko eta Troyako meategiko mineralak ere ikusgai dira. Juan de Lizarazu aretoko Amalur erakusketan, berriz, naturak sortutako pieza bitxiak ikus ditzakegu. Gernikako Arbola plazan, urtero bezala, haurrei mineralogia eta paleontologia zer den modu atseginean erakusten dien parkea jarri da. Bertan hainbat jolas aurki ditzakete: rokodromoa, meategia, dinosauro erraldoia... Bestalde, Ederrena pilotalekuan mineral, fosil eta harribitxien azoka zabalik da igandera arte.

Udazkeneko Musika Zikloa

Urretxu-Zumarragako Kimets eta Donostiako Santa Zezilia abesbatzek eman zioten hasiera aurtengo Urretxuko Udazkeneko Musika Zikloaren hamaseigarren edizioari. Joan den asteburuan, berriz, bi herriotako Goiargi eta Azkoitiko Iraurgi abesbatzak izan genituen entzungai. Egitarauko azken bi emanaldiak igande honetan eta abenduaren 16an izango dira, gainontzeko biak bezala, San Martin de Tours elizan. Bi emanaldi hauek dira, hain zuzen ere, seguraski jendearen arreta gehien piztuko dutenak. Izan ere, igande honetan, arratsaldeko 7etatik aurrera, EE.BB.-etako Seattle-etik etorritako The Esoterics abesbatza arituko da eta abenduaren 16an, berriz, Oihane Toledo soprano urretxuarra. Igande honetan entzungai izango dugun The Esoterics, Estatu Batuetako abesbatzarik abenturazaleena, gaurko musikan espezializatu den EE.BB.-ko abesbatza bakarretakoa da. Abesbatza hau goraipe asko jasotzen ari da, gaurko musikaren estilo ezberdinak jorratzeaz gain, bere emanaldietan antzerki eta koreografia elementu aberatsak sartzen baititu. Igande honetan, arratsaldeko 7etan, San Martin de Tours elizan eskainiko duten emanaldian azken bi mendeetako konpositore ugariaren lanak kantatuko dituzte, tartean Aita Donostia, Tomas Garbizu eta Francisco Escuderoarenak.

Datorren urteko Kilometroak antolatzeke lekukoa herrian da

Urriaren 7an Urretxu-Zumarraga Ikastolako lehendakariak, Maria Luisa Mujikak, eta zuzendariak, Aitor Zubizarretak, datorren urteko Kilometroak antolatzeke lekukoa jaso zuten Beasaingo Ikastolako arduradunen eskutik. Beasaingo Kilometroak-en hurrengo egunetik lekukoa ikastolan dago eta baita datorren urteko Kilometroak antolatzearen ardura ere.

Ikastolako zuzendaria, Aitor Zubizarreta, lekukoa eskuan duela.



Ekaineko alean aipatu genizuen bezala, ikastolak udaberrian jakin zuen 2002ko Kilometroak antolatuko zuela eta ordutik hainbat lan egin da jada. Ibilbidea, esaterako, ia erabat zehaztua dago jada. Datorren urtean bi ibilbide izango dira, bata luzea eta bestea motza. Biak Lizeotik aterako dira eta ia hamar kilometroko ibilbide luzea Santa Barbara eta Antiotik pasako da. Motzak, berriz, 7 kilometro izango ditu eta Antiotik pasako da.

Koordinazio batzordea ere osatua dago eta koordinatzaile nagusia aurtengo Kilometroak antolatu duen Igor Elortza ormaiztegiarra izango da, bere alboan Urretxu-Zumarragako lagun bat izango du lanean lagun diezaion. Honetaz gain, batzordeak eta hauen buruak zeintzuk izango diren ere zehaztua dago. Bestalde, Ikastola

Tram-Grafik enpresarekin harremanetan jarri da arlo artistiko-teknikoa koordinatu dezan. Enpresa hau Kilometroak denda dekoratzeaz eta eslogana eta anagrama sortzeaz arduratuko da, besteak beste.

Esloganaren, anagramaren eta arroparen aurkezpena Santa Lutzi inguruan egiteko asmoa dute ikastolakoek, Kilometroak 2002 festaren aurkezpen ekitaldi nagusiaren barnean. Bertan Kilometroak 2002ko arropa aurkeztuko duen moda desfileaz gain, hainbat kultur ekitaldi ere egongo dira. Abestiari dagokionez, antolatzaileek udako abestien modukoa izatea nahi dute, gogoraeraza izan dadin. Abestia udaberrirako prest izango da.

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza

Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU



Ruben Sanchezek irabazi du "Euskal Jaia 01" argazki rallya.

Argazkia: Aguado Goñi.

"Euskal Jaia 01" argazki rallyko sari banaketa

Larunbatean "Euskal Jaia 01" argazki rallyko sarien banaketa izan zen Kultur Etxean. Goizeko 10:30etatik aurrera partehartzaileen diapositiba emanaldia egin zen eta ondoren Javier Carballok, Asier Larrazak eta Jose Angel Tellezek osatzen zuten epaimahaiak irabazleen izenak ezagutzera eman zituzten. Lehen saria Ruben Sanchezek irabazi zuen, bigarrena Nerea Arnaizek eta hirugarrena Javier Quirosek. Herritar onenari saria Edorta Mendiolak eraman zuen.

Patata tortila lehiaketa

Garaialde Lizeoan ikasten duten Joseba Iturbek, Xiker Aierzak, Ane Mantxolak eta Amaia Perezek irabazi zuten joan zen ostiralean Zumarragako Udaleko Gizarte Zerbitzu sailak antolatzen duen Gaztetxoentzako Gastronomi Lehiaketa. Aurtengoa bosgarren ekitaldia izan da eta partehartzaileek patata tortila prestatu behar zuten. Lan honetan bi herrietako ikastetxe ezberdinetako 80 neska-mutil aritu ziren eta ondoren epaimahaiak erabakia hartu zuen. Honen arabera, tortilarik onena aipatutako Lizeoko taldearena izan zen eta 75.000 pezetako saria eraman zuten. 50.000 pezetako bigarren saria La Salle-Legazpi ikastetxeko Cristina Ceballosek, Olaia Mateok, Ana Caballerok eta Lara Miguelek irabazi zuten. 30.000 pezetako hirugarren saria, berriz, Lizeoko Alain Beltzak, Aitor Zabaletak, Maitane Gabiriak eta Ainhoa Sorronek osatutako taldearentzat izan zen.

Asier Cuevas Goierri Garaiaren 5. Herri lasterketako garaile

Joan den larunbatean Behobia-Donostia lasterketa prestatzeko aukera bikaina eskaintzen duen "Goierri Garaiaren 5. Herri Lasterketa izan zen". 251 korrikalaririk parte hartu zuten, iaz baino 50 gehiagok, eta Asier Cuevas eibartarra izan zen garailea. Asierrek 36 minutu eta 34 segundutan bete zuen 12,6 kilometroko ibilbidea. Bigarrena Unai Saenz Barakaldoarra izan zen (37:31) eta hirugarrena Cipri Burcio legazpiarra (39:23). Helmugara heltzen lehen emakumea Marieli Martinez legazpiarra izan zen eta 46 minutu eta 22 segundu behar izan zituen. Beterano mailan Jose Migel Manzidor izan zen lehenengo eta junior mailan, berriz, Gorka Rodriguez legazpiarra.



Argazkia: Aguado Goñi.

Unai Saenz eta Asier Cuevas podiumean.

Gau Giroan: Gaueko aisialdirako programa

Gazteen asteburu gauetako aisialdiaren ereduak sortzen dituen arazoe-kin kezkatu (istripuak, drogadikzioa, istiluak...), Zumarragako Udalak Gau Giroan izeneko gaueko aisialdirako programa jarri du abian. Programa honek orainarte ez zegoen eskaintza alternatiboa jartzen du gazteen esku, kirolean eta kulturaren oinarritutakoa, gazteek asteburu gauetan beste aukera batzuk izan ditzaten.

Udalak hamar asteburutarako egitaraua prestatu du eta ekimenak arrakasta badu luzatzeko asmoa du. Ekintza ezberdinak ostiral eta larunbatetan izango dira, gaueko hamaiketatik goizeko ordubiak arte. 16-30 urte bitartekoei zuzendua dagoen egitaraua hilaren 27an hasi zen eta abenduaren 29a arte luzatuko da. Aste hauetan guztietan gazteek internet, zine emanaldiak, ikastaroak (grafologia, barrearen tailerra, graffitia...) eta kirol ezberdinetan (beisbola, aerobika, futbola, eskubaloia...) aritzeko aukera izango dute, besteak beste. Hauetako ekintza gehienetan parte hartzeko izena eman beharra eta kuota sinboliko bat ordaindu beharra dago. Izen-emateko orriak Zumarragako Udaletxean, Ispilla Kiroldegian, Udal Liburutegian eta Informatika Zentruan daude.

Ostiral honetan gazteek interneten nabigatzeko aukera izango dute hamaiketatik ordubietara Informatika Zentruan eta grafologia ikastaroa izango da liburutegian hamaiketatik ordubietara. Larunbatean, berriz, hamaiketatik aurrera, abentura kirola eta aerobika egiteko aukera izango da Ispilla Kiroldegian.

Urbe, 106 urteko tradizioa

Zumarragako Urbe arropa denda 50 urte bete ditu hil honetan. Denda hau bi herriotan dagoen zaharrenetako izango da seguraski, are gehiago jatorrizko denda, egun Maite kafetegia dagoen lekuan zegoena, duela 106 urte zabaldu zela kontuan hartzen badugu. Diego Urdangarin izeneko denda hura, egun Urben lan egiten duten Iñaki eta Luis Urdangarinen birraitonak, Diegok, zabaldu zuen eta bertan arropa eta etxerako tresneria saltzen zuten batik bat. Dena den, garai hartan herrian oso denda gutxi zeudenez, ia denetarik aurkitu zitekeen bertan. Denda hori, berandua-gogojen Diego Urdangarin izena hartu zuena, duela 20 bat urte itxi zen.

1951n Iñaki eta Luisen aitona, Laureanak, familian lanerako jende asko zegoela eta, denda berria zabaldu zuen zaharrenean parean soldaduskatik etorri berria zen semeak, Luisek, bertan lan egiten zezan. Dendari Urbe izena eman zion, bere abizenetik eta emaztearenetik, Berriotxoak, zetorrena. Urbe izan zen fluoreszenteak jarri zituen herriko lehen denda eta ordutik dendaren itxura ez da batere aldatu. Eskaintza, ordea, bai. Denda berrian ere arropak eta etxerako tresneria ziren eskaintza nagusia, baina beste gauza asko ere saldu dituzte urte hauetan guztietan, Iñakik eta Luisek esan digutenez. "Garai batean dendetan gauza ugari saltzen



Luis eta Iñaki dira orain dendaz arduratzen direnak.

“Urbe denda baino gehiago etxea izan da familiakoentzat zabaldu zenetik”

ziren, baina azken urteotan espezializatu egin dira. Emakumezkoentzat jantziak,

betaurrekoak, drogeria gaiak... ere saldu izan dira denda honetan. Baita altzariak ere! Amamaren familiak altzariak egiten zituen eta gure dendan egun baino jenero gutxiago zegoenez, altzariak erakusgai jartzeko tokia presatatu zen”.

Urte hauetan guztietan Urdangarin familiako kideak dendan gora eta behera ibili dira eta urteurrena ospatzeko bazkari bat egin zuten. Izan ere, Iñakik dionez, Urbe denda baino gehiago etxea izan da beraientzat. "etxeko gauza ugari dendan gordetzen ditugu eta txikitari familiako guztiok eta gure lagunak dendan jolasten ibiltzen ginen. Egun, gure seme-alabek ere dendan gordetzen dituzte bizikletak eta jostailuak. Denda hau gure etxea bada, aitzak hala nahi izan zuelako da. Bera jubilatutik dago jada, baina egunero jaisten da dendara”.

Bizitza osoa dendan eman ondoren, hainbat bitxikeria ere badituzte kontatzeko Urdangarintarrek. "Aitak Antonio Machinek, Casinon jo zuen batean, dendan bizar-xaflak erosi zituela esaten du, baina guk ez diogu sinisten. Beharbada egia izango da...". Bestalde, Azkoitiko den Iñakiren emaztearen amonak, Iñaki ezagutu orduko bazuen bere familieren berri, "garai batean aitona Azkoitiko eta Azpeitiko ferietara joaten zen saltzera eta nire emaztearen amonak ezagutzen zuen”.

FAMILIA BABES ASEURUA

-MEDIKUNTZA PRIBATUA.
-HORTZ KLINIKAK.
-TRAFIKO ISUNEN ERREKLAMAZIOAK.




-BABES JURIDIKOA: abokatu pribatua.
-HERIOTZ ASEURUA.
-ISTRIPU ASEURUA.
-BIDAIA LAGUNTZA.

Labeaga, 16 URRETXU
☎ 943 72 93 69

La Previsora Bilbaina, S.A.
Aseguru etxea

GUGGEMHEIM BILBAO
museoari atxikituriko enpresa



Iker Antia

Izenik gabeko errekak

Betidanik mendien maldan behera joan diren izenik gabeko errekak, gaurkoan, goruntz ekin diote. Manifestazio eta protestan dira. Atentzio eta zaintzak eskatzen dituzte. Hala ere, inork ez die kasurik egin.

Jadanik ez dute esperantzarik eta harririk zailena baino gogorrago eta zeke-nago goruntz jarraitu dute azkeneraino. Itsaso eta lakuetatik, lautada eta mendiak zeharkatuz, mendi tontorreraino. Denak berdin darrai, ez da ezertxo ere aldatu. Suizidioaren aukera ere jorratu dute, baina beren zekenkeria zikuta bezain pozoin ohoretuak ez lukeela zikiratuko ziurra da. Beraz, neurriko amaiera bilatu beharra dute. Zornatsu daude errekak. Ezertxo ere lortu gabe. Jasangaitza egiten zaie. Berauen gogo eta adore guztiak desagertuak dira. Ohorea, zorrotenean behera estoldara iritsitako uraren antzera, usteldua dago.

Egin ahal guztiak egin ondoren eta haurtzaro malenkoniak zaztatuak, geldirik egon ezinik, azken esperantza, azken argitxoa, azken-azkenean dagoen urrats hori ematea erabaki dute. Jainkoengana jo dute. Fede ekintza batean, ur guztien Jainko eta Jainkosa guztiei, lurrinduz berauen bizitzaz beste egitea eskatu diete. Atzera egin zezaketan, itsasoetan berauen heriotza ezaguna, jadanik eskainia, aurkitu zezaten. Baina nekeak ez die uzten. Gainera... borroka honek bere heriotza merezi du.

Jainkoek, egoera aztertu ondoren, heriotz-lurrina onartzea erabaki dute. Lurrinketa kontsumatu eta ezertarako denborarik gabe euriaren malkoen bitartez berpiztu dira errekak...

Betidanik mendien maldan behera joan diren izenik gabeko errekak, gaurkoan, goruntz ekin diote...

BILINTX LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.

-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224

Fax: 422363 20003 DONOSTIA

-Fermín Calbetón, 30

Telf. 422696 20003 DONOSTIA

-República Argentina, 4 Telf. 626817


Fax: 626817 20300 IRUN

-Arostegieta, z/g. Telf. 673533

Fax: 673500 20400 TOLOSA

-Ibargarai, 12 Telf. 764050

Fax: 764050 20570 BERGARA




Zer iritzi duzu irailaren 11ko gertakarien ondorengoez?



Ane Urmeneta

Gertatutakoa gertatu ondoren ez zen batere erraza erabaki bat hartzea, baina EE.BB.-ek hartu duten erabakia ez zait zuzena iruditzen. Are gehiago, hartutako erabakiak mundu guztian eragina izango duela jakinik.



Fco. Javier Fernandez

Argi dago erasoen ondoren zerbait egin beharra zegoela... baina EE.BB.-ek horrelako zer edo zer merezia zuten, prepotente hutsak baitira. Guda jendeak telebistaz ikusteari uzten dionean bukatuko da.




Ana Mari Paino

Irailaren 11ko gertakaria izugarria izan zen eta EE.BB.-ek hartu duten erabakia logikoa iruditzen zait, nahiz eta ez nagoen guztiz ados.



Petri Paino

Ahizparekin bat nator, baina EE.BB.-en jarrerak ekar ditzaken ondorioak oso lazgarriak izan daitezke. Ez dakit noraino hel daitekeen hau guztia eta beldur naiz.



Juan Luis Urzelai

Dorre bikien erasoaldia basakeria izugarria izan zen, baina nire ustez OTANekoek kontu handiz egin beharko lituzkete erasoaldiak. Justizia egin behar da, baina batere errurik ez duten pertsonak kaltetu gabe.



Itziar Apaolaza

Nire ustez irailaren 11ko gertakarien ondoren hartu diren erabakiak gogorregiak dira, gauzak hitz eginez konpondu beharko lirateke. Honek guztiak mundu mailako guda batera eraman gaitzake.

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

#kutxa

fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lantza

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52




Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Juanito Mendiara, artisau

Zuetako askok jakingo duzuen bezala, bertan izango zineten eta, urriko bigarren asteburuan Artisaualdia 2001 feria izan zen Ordizian. Feria hau Gipuzkoako Artisauen Elkarte den Gabiltzak antolatu du aurten bigarrenagoz eta lau egunetan Gipuzkoa eta Arabako 52 artisauen lanak ikusgai izan dira Ordiziako Majori kiroldegian, horretaz gain hainbat hitzaldi eta ikastaro ere izan dira. Gabiltza 1996an sortu zen, Gipuzkoako hainbat artisauk zeuzkaten kezka zirela medio, gune egoki bat aurkitu nahian. Orditik hona Gipuzkoako artisauen gune eta topaleku bilakatu da eta bere helburuak artisautza arloa lanarautzea eta sustatzea, produktuen kalitatea hobetzea eta merkaturaketarako bideak sortzea da. Gabiltzaren atea lurraldeko artisau guztiei irekita daude eta egun 34 artisau dira elkartearen kide. Loreak lehortzen dituen Agiñako Eurne Astigarraga eta danboliñak egiten dituen Juanito Mendiara urretxuarra Gabiltzako kideak dira. Gaztainak jateko sasoia heldu dela ikusirik, bere lanaz hitz egiten izan gara Juanito Mendiaraekin.



Noiz eta nolatan hasi zinen danbolinak egiten?

Kapritxoeko gauza zela ikusi eta asti pixka bat nuenez, duela hamar bat urte hasi nintzen. Betidanik mainatsu xamarra izan naiz eta galdaragintzan lanean aritu naizenez, ez zitzaidan gehiegi kostatu honetan hastea. Hasieran ez nuen asti gehiegirik, baina jubilatutako ondoren honetan aritu naiz buru-belarri. Lehenago danbolin handiak egiten nituen, beheko suetarako, baina gero jendeak sua egiteko aukerarik ez zuenez, ez zituela gaztainak jaten ikusi nuen. Hori dela eta, etxerako danbolinak egiten hasi nintzen.

Nolakoak dira danbolin hauek?

Egun egiten ditudan danbolinak txikiagoak dira eta kanpineko bonbonen

“Donostiako tabernari batek baino gehiagok erosi dit danbolina, gero bezeroei gaztainak eskaintzeko asmoz”

gainean jarri daitezke, beraz etxean gaztainak erretzeko aproposak dira. Halako batean sukaldeetan oilaskoak erretzeko erabiltzen den motor txiki bat ikusi nuen eta danbolinei jartzea bururatu zitzaidan. Honela, danbolinari eragin beharrik ere ez dago: minutuko bi bira ematen ditu danbolinak motor honek lagunduta eta ordu erdian kilo bat pasa gaztaina erre daiteke. Jendeak hasieran gasarekin erretzen zirelako bere zalantzak zituen, baina gasa ere lurretik

ateratzen da. Nik ferietan gaztainak dastatzeko ematen ditut eta jendeak oso gustura jaten ditu. Izan ere, beheko suan erretako gaztainak bezain onak ateratzen dira.

Modelu ezberdinak egiten al dituzu?

Ez, etxerako modelu txikia soilik egiten dut. Handiagoa eskatu izan didate, baina motor txiki horiek kilo bat gaztain mugitzeko indarra soilik du eta danbolin handiagoa eginez gero ezin du mugitu. Bestalde, kanpin gasek su txikia egiten dute eta danbolin handiagoa jartzen baldin badiezu sua ez da danbolinaren alboetara iristen.

Nola egiten dituzu danbolinak?

Lanik handiena eskuz egiten dut. Milimetro erdiko txapa galdaragintza taile-

la eta asmatzailea

rretan mozten didate eta txapa kurbatzeko makina txiki bat erabiltzen dut. Txapa zulatu eta soldeatu nik neuk egiten dut, baita danbolina kanpin gasaren gainean jartzeko euskarria ere. Danbolin bat egiteak ez du sekretu handirik, baina txapa latza izan behar da gaztainen azala zulatu dadin danbolinaren aurka jotzen dutenean. Izan ere, azala zulatzen ez bada, gaztainak ez dira behar bezain ondo egiten (etxeko labean egiten direnean hori gertatzen da). Lau ordu inguruko lana ematen du danbolin bat egiteak.

Danbolin asko saltzen al dituzu?

Iaz dexente saldu nituen eta aurten gehiago salduko ditudala uste dut. Hasieran ezagunentzat soilik egiten nituen, baina ETBko Bertatik Bertara saiokoak tailerrean erreportaia bat egiten izan zirenetik, gehiago saltzen ditut. Jendeari motordun danbolina gustatu egin zitzaion nonbait eta ETBra deika hasi ziren. Joxe Mari Gabiriak nire telefonoa eman zien eta garai hartan ia egunero deitzen zidaten danbolin eske: Zornotzatik, Zaldibartik, Azpeititik... Erosle gehienek etxerako erosten dituzte danbolinak, baina Donostiako tabernari batek baino gehiagok ere erosi dit, gero bezeroei gaztainak eskaintzeko asmoz.

Ferietan ere ibiltzen zara...

Bai, hemen inguruko ferietan ibili izan naiz, baina iaz Gabiltzakoek, Gipuzkoako Artisau Elkarteak, deitu zidaten eta Ordiziako Artisaualdian ere izan nintzen. Orduetik Gabiltza elkarteak kidea naiz eta aurten bigarrenagoz parte hartu dut Artisaualdian. Beasaingo Kilometroetara joateko gonbitea ere luzatu zidaten, baina ez nuen erakustokia prestatzeko astirik eta ezezkoa eman behar izan nien. Ferietara, saltzera baino, erakustera joaten naiz. Jendeak eskuorria

etxera eramaten du eta ondoren nire danbolina erosi nahi dutenek deitu egiten didate.

Danbolinez gain, beste artisautza lanik egiten al duzu?

Aurten etxean piparrak erretzeko tramankulu bat ere egin dut eta Santa Anastasietako azokan erakutsi nuen lehenengoz. Lau gupil eta manilatxo bat engrane, piñoi eta katearekin ditu. Alde batetik piparra sartzen zaio eta azpian parrila bat du butanoarekin. Ordubetean berrehundik pipar gora erre daitezke tresna honekin. Datorren urterako, berriz, etxean infragorriekin oilaskoak erretzeko tramankulu bat prestatzen ari naiz eta oiloak lumatzeko makina bat ere prestatu dut.

Agerian da artisautza lanetan oso gustura zabilzala...

Ez daukat ez aspertzeko astirik... baina oso gustura nabil. Izan ere, plastikoa-ekin lanean hasi nintzen arte galdaragintzan ibilia nintzen eta oso gustura hartu dut berriro ere lan hau.



MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



HAR GOR
ILEAPAINDEGI MIXTOA
Nekolalde, 3 baxua
☎ 943 72 44 42



HARGOR
Artisautza - arropak - opariak
Nekolalde, 1
☎ 943 72 56 58



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuk, dordokak


Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA



Legazpi, 5
☎ 943 726274
ZUMARRAGA



Euskal literaturaren Urret




Maite Arozena

Maitek 17 urte ditu eta batxilergoko 2. maila ikasten ari da Garaialde Lizeoan. Datorren urtean ekonomia edo zuzenbide kriminala ikasteko asmoa du. Aurten hirugarren goz parte hartu du Urruzuno sariketan eta sorpresa handia izan omen zen bere lana saritua izan zela jakitea. Maiteren ipuiak, "Aita, zer gertatzen zaio munduari?", Arjeliako ume batek patera batean Espainiari daraman

bidaian bere egunkarian idazten duena kontatzen du. Maitek idaztea atsegin du, baina behartzen ez badute ez omen du egiten. Irakurtzea ere gustuko du eta ingelesezko liburuak irakurtzen ditu batez ere, John Grishamenak bereziki gustukoak ditu. Irakurtzeaz gain, lagunekin parranda egitea eta musika entzutea gustuko du.

Mikel Babiano

Mikelek 16 urte ditu eta batxilergoko 1. maila ikasten ari da Institutuan. "Oroitzenak" izeneko ipuinarekin irabazi zuen Urruzuno sariko prosa ataleko saria. Ipuian monastegi batean uzten duten mutiko baten eta bertan bizi den neska baten arteko harremana kontatzen du. Mikelek betidanik atsegin du idaztea, eskolatik kanpo ere idazten du eta bere lanak hainbat lehiaketetara aurkeztu ditu. Ez du erabaki oraindik batxilergoa bukatu ondoren zer ikasi nahi duen. Dena den, ikastea asko atsegin duenez, beharbada horrekin zerikusia duen zer edo zer ikasiko omen du eta oso zaila den arren, idazlea izatea gustatuko omen litzaioke. Irakurtzea ere asko atsegin du eta denetik irakurtzen du, baina batez ere abenturazko liburuak. "En los pilares de la tierra" eta "El señor de los anillos" liburuak bereziki gustukoak ditu. Idazteaz eta irakurtzeaz gain, puzzleak egitea oso gustukoa du.



Eusko Jaurlaritzako

Kultura Sailak gazteen artean literatur zaletasuna suspertzeko asmoarekin Urruzuno literatur sariketa antolatzen du 1986az geroztik. Sariketa hau DBHko 3. eta 4. mailako ikasleei eta batxilergokoei zuzendua dago eta Urretxu eta Zumarragako ikastetxeetako ikasleek urtero parte hartzen dute. Ia urtero herriko ikasleren bat saritua izan bada ere, aurten bereziki ondo aritu dira herriko idazle gazteak eta bost herritarrek lortu dute saria irabaztea: Ainhoa Ugarteburuk, Paloma Quintanak, Mikel Babianok, Amaia Lakak eta Maite

Amaia Laka

Amaia batxilergoko 1. maila ikasten ari da UGLEn eta batxilergoa amaitu ondoren ingeniari itzako ikasteko asmoa du. Iaz Lizeoan ikasi zuen eta euskara klaserako idatzi zuen Urruzuno sariketako poesia atalean saritua izan den "Zuhaitza" poesia bilduma. Lana egina zuenez, lehiaketara aurkeztea erabaki zuen eta espero ez bazuen ere, bere lana saritua izan zen. Klasetik kanpo ez du idazteko ohiturarik, nahiz eta idaztea gustuko duen. Irakurtzea ere gustuko irakurtzen ditu. Idazteaz eta irakurtzeaz gain, Amaiaren zaletasunik handien. Iaz baina jada utzi egin du.


xu-Zumarragako harrobia

Arozenak.

Sari banaketa irailaren 7an izan zen Lakuan eta Sabin Intxaurrea kontseilaria izan zen gazteei sariak banatu zizkiena. Sarituek Europan zehar bidaia eta 40.000 jaso zituzten eta horretaz gain, euren lanak argitaratuak izan dira. 10 egun iraun zuen bidaia irailaren 8an hasi zuten gazteek eta egun horietan Frantzia, Belgika, Holanda eta Ingalaterrako hainbat toki ezagutzeko aukera izan zuten. Esan digutenez, "oso esperientzia ona izan da eta oso gustura ibili gara. Gure arteko giroa bikaina izan da eta lagun asko egin ditugu".


Paloma Quintana

Palomak 16 urte ditu eta batxilergoko 1. maila ikasten ari da Garaialde Lizeoan. Zientzietako adarrean ikasten ari da, baina oraindik ez du erabaki zer ikasi nahi duen batxilergoa amaitutakoan. Irabazteko itxaropenik ez zuen arren, euskarako klasean idatzitako "Beste mundua ezagutzen" ipuina Urruzuno sari-ketara bidaltzea erabaki zuen, saria oso ona iruditu baizitzaion. Ipuian kolonizazio garaiko neska amerikar indigena baten istorioa kontatzen du. Eskolatik kanpo ez du idazteko ohitura, baina aurten bidaian primeran pasa duenez, datoren urtean ere lehiaketara aurkezteko asmoa du. Irakurtea oso gustuko du eta gehien gustatu zaion liburua Noah Gordonen "El medico" izan da. Irakurtzeaz gain saskibaloian jokatzeko eta gitarra jotzeko ere atsegin du.



Ainhoa Ugarteburu

Ainhoa batxilergoko 1. maila ikasten ari da Jose Mari Iparragirre institutuan eta batxilergoa bukatzen duenean euskal filologia ikasteko asmoa du. Klaserako soilik idazten eta irakurtzen du eta ez du bereziki atsegin duen liburu eta idazlerik. Urruzuno sari-ketara anorexian erortzen den neska baten istorioa kontatzen duen "Askatasun taupadak" izeneko ipuina aurkeztu zuen. Aisialdian lagunekin festetara joatea gustatzen zaio eta musika oso gustuko du. Hala izanik, duela 9 urte bibolina jotzen hasi zen eta egun panderoa jotzen ere badaki. Bibolina musika eskolako taldearekin jotzen du eta Zelai Arizti zinema eraberrituaren inaurguruzio ekitaldian aritua izan da. Panderoa ere musika eskolako taldearekin jotzen du.



oa du eta prosa zein poesia liburuak
ez gain, lagunekin ateratzea da
arte eskubaloian jokatzeko aritu zen,

McRea Clarke:

“Bat-bateko umorea gidoia duena baino aberatsagoa da”

McRea Clarke duela 36 urte jaio zen Ipar Irlandan, Derryko Creggan auzoan hain zuzen ere. Berak dioenez, "gudaren gunea" deitzen duten auzune horretatik datorkio bere umore bitxia. Londresen bizi izan zen bederatzirte urtez, eta han ezagutu zuen egun bere emaztea den Karmele. Beraien alaba Josebe jaio zenean Euskal Herrira etorri ziren eta hiru urte daramatza hemen, bere esanetan bere bizitzako urterik zorionsuenak. Ingeles

eskolak emateaz gain, bere pasio nagusia den umorea ere lantzen du eta aitortu digunez, pasio hau ogibide bilakatu nahiko luke etorkizunean. Bere asken emankizuna aste honetan bertan izan da, The Intrepid Fox tabernan, Jon Plazaola eta Iker Antia herritarrekin batera. McRea bere familiako bitxikeriak eta Ikerrek ikasle pisuetan bizitako istorioak kontatu zituzten. Jonek, berriz, hainbat pertsonaia imitatu zituen.

Ikuskizunaren munduko zein esparrutan kokatuko zenuke zeure burua?

Ni funtsean "umorista" naiz. Ez dut inoiz xehetasun guztiakin antolatutako ikuskizun bat nahi izan, betidanik desordenatu eta ero xamarra izan bainaiz. Baina beti ere, nire xedea jendeak nire espektakuluekin ondo pasatzea izan da. Orain gaztelera ikasi dudanez, forma gehiago du ikuskizunak

Nolatan hasi zinen ikuskizunaren munduan?

Londresen bizi nintzenean nire bizitza nahiko aspergarria zen. Baina gau batean, 1994 inguruan, kaletik nindoala, "Club" batekin topo egin nuen. Bertan, jendeak mikrofonoa hartu eta eskenatokira igotzen zen gauzak kontatzera, hitz egitera. Bertan horretan hasi nintzen, eta biziatu egin nintzen. Erresuma Batuan hiri eta herri ezberdinetako aretoek eta Kafe-antzokiak zirkuitu bat osatzen dute. Horretan murgildu nintzen eta Londresez gain, Dublin, Manchester, Birmingham edo Belfasten ere aritu izan naiz. Behin Manchesterreko "Club" batean, nire auzoan ibiltzen ziren soldadu britaniarrez hitz egiten hasi nintzen. Jende artean soldadu britaniarrek izandako hiru tipo zeuden eta alde egiteko esan zidaten. 10 segundu pasa baino lehenago kalean nintzen. Mingain zorrotza dut, baina inoiz ez dut borroka eta horrelako kontuetan sartu nahi izan, gainera txiki xamarra naiz.

Zure saioretako berezitasunik handienetakoa gidoi eza da. Zergatik?

Ez, ez dago gidoirik, irlandako umorearen ezaugarri garrantzitsua da hau. Honelaxe mantendu nahi dut, gai zehatz batzuk jorratuz. Baina hauek astero aldatzen dira. Irailak 11n gertatutakoa bezalako gaiak badaukazu, aste horretan gauzak dexte aldatzen dira. Dena dela, gertaera edozein delarik ere, horren inguruan txistek egin behar dira. Argi daukat, ikuskizunaren oinarria bat-batekotasuna dela. Nire ustez, inprobisatutako umorea gidoia duena baino hamar aldiz aberatsagoa da. Hala ere, bapatekotasun hau aukeratutako gaien eta saioren arabera aldatzen da. Adibidez, sexuaz hitz egiten dut; hemen jende guztiak du zerbait esateko, birjina delako, sexuan "Don Juan" -a delako...

“Jendea nirekin batera eskenatokira gehiagotan igotzea gustatuko litzaidake”

Jendearen erreakzio ezberdinek ikuskizunaren norabidea erabat alda dezakete. Bestalde, nire ikuskizunetan abestu ere egiten dut, "Ikusi mendizaleak" eta holakoak, jendea jada nahiko aspertuta daukat abesti horrekin ...

Urretxun nola hasi zinen?

Urretxura bizitzera etorri nintzenean, hau guztia utzi beharko nuela pentsatzen nuen, baina gaztelera pixka bat ikasi ondoren, nire lehen aktua izan iritsi zen. Buhame tabernan izan zen 99-ko apirilean eta ez dut oso ondo gogoratzen ikaragarriko mozkorra bainerraman. Hori bai, gaztelera maila kaxkarra nuen, oso urduri nengoela gogoratzen dut. Hori dela eta, egun horretan inoiz baino gehiago inprobisatu nuen. Legazpikoez eta larrua jotzeaz zerbait esan nuela eta taberna beteta zegoela ere gogoratzen dut. Esperientzi honek ikuskizuna eta nire gaztelera hobetzen jarraitzeko indarra eta gogoia eman zidan.

Ikusleek ondo erantzuten al dute?

Publikoaren erreakzio ezberdinak oso garrantzitsuak dira nire espektakuluan. Tabernetako jendea zozo xamarra da, normalean jendea poteatzen ari da eta ez du arreta gehiegirik jartzen. Gaztetxe eta kafe-teatroetan ezberdina da, jendea gehiago animatzen da eta. Jendea nirekin batera eskenatokira gehiagotan igotzea gustatuko litzaidake, Aretxabaletan mozkor batek edo Zarautzen mutil-zahar kadrila batek egin zuten bezala. Hori bai, igo izan direnak mozkortuta zeuden edo artistak ziren. Behin Oñatiko Aker tabernan





mahai gainera igo nintzen eta tabernetan mahai edo eserlekuetara igotzen diren baka-
rrak mozkorrak direla esan zidaten.

Ba al dago euskal umorerik?

Bai oso berezia da eta irlandarraren antzekoa da. Hemen jendeak bere buruaz barre egin dezake lasai-lasai eta baita ondo-koaz edo beste edozertaz ere. Baina jende zozo dexente ere badago. Koadrilan dagoen jendeari lotsa handia ematen dio nire espektakuluan zerbait esateak, mozkortuta ez badoa behintzat. Jendeak ez ditu bere iritzi eta ideiak arriskuan jartzen. Irlandan edo Ingoterran ezberdina da, koadrilan egon ala ez egon, beti jasoko duzu erantzunen bat.

Euskal Herritik zerk harritu zaitu gehien?

Boteak, poteoko boteak. Ikaragarria da 15-20 pertsonako koadrila batekin ateratzen zarenean, dena kontrolatzen duen tipo bat dagoela ikustea. Hemengo bizitza sozialak, jendearen jarrerak, ere harritu nau. Hemen daramadan denboran, ez herrietan eta ezta hirietan ere ez dut bortizkeriarik aurkitu, inoiz. Eta nire ikuskizuna batzuetan

nahiko probokatzailea izan daiteke...

Honetaz bizitza gustatuko litzaizuke? Zein da zure helburua?

Bai, helburua profesionalki aritzea izango litzateke, honetaz bizitza, baina nire ikuskizuna hain berria eta ezberdina denez, denbora eman behar zaio oraindik. Nik neuk, etorkizunean denbora gehiago eskaini nahiko nioke honi guztiari. Gipuzkoako herri guztietan egon naiz eta datorren urtean Euskal Herri osora hedatu nahi dut, ea bi urteren bueltan nolabaiteko zirkuitu bat eratzten dudan.

Zer moduz doakizu euskararekin?

Ondo, oso ondo. Ez dut konfiantza handirik hitz egiteko, alaba eta emaztearekin soilik hitz egiten dut, baina ulertu oso ondo egiten dut. Taberna batean jendeak euskaraz hitz egiten badu berdin zait, ikasteko entzun beharra baitaukat. Euskaltegian ez dut asko ikasi, gramatika galtzen naiz. Nire desafio pertsonala, ikuskizuna euskaraz egitea da, denbora kontua da soilik. Agian etorkizunean ingelesa eta euskara uztartuz, haurrentzako zerbait antolatuko dugu, ikusiko dugu.

Montajes e Instalaciones Electricas
HERCE
Electricidad. M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETXU

TABERNA

Taberna

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar-zain

Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura

Labeaga 31 ☎ 943722780
URRETXU

foto luz
Argazkilaria

Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga


Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *

ARRAINDEGI

**baterako pertsona bat
behar da
BERGARAN**



☎ 607 66 02 44

Bertsozale poloniar

Malgorzata Czarkowska etnologia ikasten ari den 25 urteko poloniako neska bat da. Iaz Pirinioetara joan zen oporretara eta bertan zegoela ipar Euskal Herrira etortzea bururatu zitzaion, albistegietan eta entzuna zuen Euskal Herria benetan nolakoa zen jakiteko ikusmina baitzuen. Bertan zela, bertsolaritzaz mintzo zen aldizkari bat irakurri zuen eta oso deigarria iruditu zitzaion. Musikaren inguruko ikasketa amaierako tesia egin nahi zuenez, euskal musikaz eta bertsolaritzaz egitea erabaki zuen. Internet oso lagungarria duen arren, Varsovian bertsolaritzari buruzko lanbat egitea ez da batere erraza, noski, eta Euskal Herrira, Jonmikel Intsausti herritarren etxera, etorri da bere tesia egiteko informazio bila. Urria amaieran, bertsozale eta bertsolari askorekin hitz egin ondoren, Varsoviara itzuli zen. Etxera itzuli aurretik bere lanaz eta Euskal Herrian ikusitakoaz hitz egin zuen Otamotzentzat.



Nolatan bururatu zitzaizun bertsolaritzari buruzko lana egitea?

Mendia oso gustukoa dut eta iaz Piriniotara joan nintzen oporretara. Bertan nengoenez, Euskal Herrira etortzea bururatu zitzaidan. ETA dela eta, Euskal Herriaz zer edo zer entzuna nuen eta herri hau nolakoa zen jakin nahi nuen. Ipar Euskal Herrian izan nintzen eta asko gustatu zitzaidan. Gainera, Poloniako usain berbera somatu nuen lehenengoz Europa mendebaldean, behi usaina. Bertan nengoela bertsolaritzaz artikulua bat zekarren aldizkari bat ikusi nuen eta oso deigarria iruditu zitzaidan. Musika oso gustukoa dudanez, gospel talde batean abesten dut, musikarekin zerikusia zuen tesia egin nahi nuen eta euskal musikaz egitea erabaki nuen. Izan ere, kultura tradizionala mundu garaikidera eta kultura globalera nola moldatu den jakiteak jakinmin handia sortzen dit.

Zer dela eta iruditu zitzaizun hain deigarria bertsolaritza?

Alde batetik, oso tradizio zaharra

delako, erdiaroan baitu bere jatorria eta bestetik, azken urteotan bertsolaritzaren susperte oso garrantzitsua eman dela iruditu zaidalako.

Varsovian bertsolaritzari buruzko lanbat egiten hastea ez zitzaizun batere erraza egingo...

Nire tesia zuzenduko duen irakasleari gaia zein izango zen jakinarazi nionean ez zidan eragozpenik jarri, baina ez du

nire lana gidatzeko ahalmenik. Bestalde, Varsovian ez dago euskal kulturaz informazioa lortzerik. Cervantes institutuak badu bertan liburutegi bat, baina euskal kulturaz ezer gutxi dago eta espainiarren ikuspuntutik, gainera. Hori dela eta, Londreseko Institute of Basque Studies bitartez, Iowako unibertsitateko irakaslea den Roz Franki idatzi nion eta lana nola has nezakeen galdetu nion. Esan bezala, hasieran euskal musika orokorrean jorratu nahi nuen,

a gure artean

baina irakasle honek bertsoaritzaz soilik aztertzea aholkatu zidan eta internet bidez euskaldun askorekin harremanetan jarri ninduen, tartean Jonmikelekin. Baina lan hau ez dago Euskal Herrira etorri gabe egiterik: nik jendearekin hitz egin nahi nuen, aurrez-aurreko informazio lortu, bertso-saioak ikusi... Bestalde, ez nuen hiri handi batera joan nahi, euskal kultura tradizionala herri txikiagoetan biziago baitago, eta Jonmikelek bere etxera etortzea eskaini zidan. Askok ari zait laguntzen, nik ez baitakit euskaraz.

“Bertsolaritzaz hainbeste irakurri ondoren, bertsolariak lehenengoz entzun nitunean ahozabalik egon nintzen”

Lehenengoz Euskal Herria hegoaldera etorri zara...

Iparraldean euskal kultura artifizialki sostengatua zegoela iruditu zitzaidan eta hegoaldera etortzea erabaki nuen. Iparraldean kultura baino esterotipoak dira bizirik dirautenak, nire ustez, eta hauetako zenbait barneratu ditudala iruditzen zait. Kilometroak egunean, adibidez, sokatira ikusten izan ginen eta "euskal indarra" esan nion Jonmikeli. Berehala konturatu nintzen esterotipoa erabiltzen ari nintzela.

Nola bideratu duzu zure lana? zer da bertsolaritzaz jakin nahi duzuna?

Bertsolaritzaz euskal kulturako elementu oso garrantzitsua dela eta oso hedatua dagoela iruditzen zait. Bere bilakaera, lantzen dituen gaiak, abertzaletasunaren garrantzia, arrakastaren zergatia, ea moda bat den, benetan duen garrantzia eta batez ere mundu garaikidera eta kultura globalera nola moldatu den jakin nahi dut. Varsovian internet bidez eta euskal kulturaren aditua den jendearen bitartez, oinarritzko informazioa eta kontaktuak lortu ditut. Euskal Herrian, berriz, hainbat jendekin hitz egiten izan naiz: Mitxelena eta Xenpelar zentroetan izan naiz, Koldo Tapiarekin izan naiz, Euskaltzaindiara


jo dut, hainbat bertsolarirekin hitz egin dut (gizonezkoak, emakumezkoak, zaharrak, gazteak...), bertso-eskoletara joan naiz, txapelketako Donibane Garaziko saiora... Hemen jasotako materialarekin Varsoviara itzuliko naiz eta lana osatzen hasiko naiz. Dena den, seguraski, internet bidez askotan jarri beharko dut harremanetan Euskal Herrian ezagututako lagunekin. Gainera Varsoviako unibertsitateko liburutegian Xenpelar zentruan ez duten bertsolaritzari buruzko XIX. mendeko liburu bat dugu eta berari buruzko informazioa bidaltzeko esan didate.

Zer moduz joan dira Euskal Herrian igarotako egunak?

Kilometroak egunean heldu nintzen Euskal Herrira eta Jonmikelek Beasaina eraman ninduen. Lehenengo egunean jada, Jonmikelek sekulako informazio pila eskaini zidan eta galdu ere egin nintzen. Jendearekin hitz egin nuen lehenengo egunetan ez nekien zer kontuan hartu, zer ez... eta txoratuko nintzela uste nuen, baina pixkanaka gauzak antolatzen hasi naiz eta nahi dudana lortzen ari naiz. Datorren udako bukatur beharra dut tesia eta ez dut uste Euskal Herrira itzultzeko aukerarik izango dudunik, beraz, bidaia honi ahalik eta etekinik handiena ateratzea oso garrantzitsua da.

Euskal Herrian hiru aste eman dituzu, lehenengoz bertsolariak entzuteko aukera izan duzu... ondorioren bat atera al duzu?

Bertsolaritzari buruz hainbeste irakurri ondoren, Kilometroak egunean lehenengoz bertsolariak entzuteko aukera izan nuen eta ahozabalik egon nintzen. Gazteak onenekin inongo konplexurik gabe aritzen ikustea, adibidez, oso deigarria iruditu zitzaidan. Bestalde, jendea niretzako bertsoak gatzelerara itzultzen aritu da eta nire ustez, zuentzat oso arruntak diren gauzak oso garrantzitsuak izango dira ikerketarako. Baina bertsolaritzari buruzko ikerketa lanaz gain, Euskal Herriko beste hainbat gauza ere eramango ditut Poloniara: Donostiara trenean joan naizenetan ikusi ditudan herri guztiak eta Txindokiren (nire maitearen) irudia, itxura susmagarria baina zapora ona duen baratxuri-zoparen zaporea, goizeko hiruetan entzuten dudana "Patxiii!!!" orrua...



RENEDO argazkiak

Jarunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Laboaga 52-54 F. URRETXU

☎ 725682

☎ 722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA

☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

PLAZAOLA
ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

A Z A R O K O A G E N D A

2, ostirala

-Gau Giroan: hamaiketatik aurrera Internet Zumarragako Informatika zentruan eta grafologia liburutegian.

3, larunbata

-Gau Giroan: hamaiketatik aurrera abentura kirola eta aerobic Ispilla kiroldegian.

4, igandea

-XIX Buzkanta lehiaketa. Goizeko 11etatik aurrera Euskadi enparantzan.
-Udazkeneko Musika Zikloa: The Esoterics korua. Arratsaldeko 7:30etan San Martin de Tours elizan.

9, ostirala

-Gau Giroan: hamaiketatik aurrera Internet Zumarragako Informatika zentruan eta grafologia liburutegian.

10, larunbata

-Agiñako jaiak:

11:30: Jai hasiera suzirikin eta kanpaekin.

12:00: Herri meza.

13:00: Jubilatuentzat salda eta txorixoa.

14:00: Jubilatuen bazkaria.

20:00: Oleta elkartean ardi gisatua eta buzkantza dastaketa.

22:00: Trikitilari gazteen txapelketa. Partehartzaileak: Amaia Arrospide-Ane Aldanondo, Eneritz eta Iker Etxeberria, Irati Elortza-Nagore Maiza eta Maider Plazaola-Ane Aldanondo.

Txapelketa bukatzean Epelde eta Larrañagarekin erromeria.

Zuhaitzaren Soinua taldekoek giroa alaituko dute arratsalde eta gauetz.

-Gau Giroan: hamaiketatik aurrera futbola eta malabarismoa Ispilla kiroldegian.

11, igandea

-Agiñako jaiak:

11:00: Herri meza.

12:00: Egaña eta Lizaso bertsolarien saioa.

13:00: Herri kirolak.

14:30: Bazkari herrikoia.

Egunean zehar trikitilariak arituko dira.

-San Martin eguna.

11etatik 1etara haurrentzako jolasak Gernikako Arbola plazan.

Goizez eta arratsalde txerria ikusgai izango da Gernikako Arbola Plazan eta txerria zozketatzeko txartelak izango dira salgai.

12:30etan, Iparragirre Balerdi musika tailerraren kalejira.

Eguerdie partean, Gernikako Arbola plazan, buzkantza dastaketa, trikitilariak eta musika tailerrak girotuta.

Arratsaldeko 7:30etan, buzkantza dastaketa Gernikako Arbola plazan, trikitilariak girotuta.

Arratsaldeko 8:30etan, txerriaren zozketa Gernikako Arbola plazan.

15, osteguna

-Iñaki Linazasororen "Zumarraga, nire sorlekua" liburuaren aurkezpena. Zelai Arizti aretoan, arratsaldeko 7:30etan.

16, ostirala

-Ados teatroa: "Manolito gafotas". Gauoko 10etan Zelai Arizti aretoan.

-Gau Giroan: hamaiketatik aurrera Internet Zumarragako Informatika zentruan eta grafologia liburutegian.

17, larunbata

-Gau Giroan: hamaiketatik aurrera skate park eta malabarismoa Ispilla kiroldegian.

18, igandea

-Musika Banden Alardea. Medina del Campoko, Barakaldoko, Artaxonako eta Zumarragako Musika Bandek parte hartuko dute. 12etan pasakallea egingo dute eta 1etan kontzertua Zelai Ariztin.

-Ostadarren mendi astea: XIV. Anjel Etxeberriaren omenezko Haur Ibilaldi Neurtua.

19, astelehena

-Mendi astea: Juan Mari Gabilondo, "Txibis"en diapositiba emanaldia. "EUSKAL HERRIKO MENDIAK". Emanaldiak 8etan izango dira, baina non izango diren ez dago oraindik zehaztuta.

20, asteartea

-Mendi astea: Jesus Mari Etxanizen eta Josu Perezen emanaldia. "Europako mendietan zeharkaldia".

21, asteazkena

-Mendi astea: Asier Azarolaren diapositiba emanaldia. "Naturaren argia".

-Santa Zezilia. 5etan Musika Eskolako pasakallea eta 7etan, Sekundino Esnaola ikastetxearen kontzertua Zelai Ariztin.

22, osteguna

-Santa Zezilia eguna: 7:30etan Antxiñako Ama Txistulari taldekoen eta Urretxuko txistularien kalejira.

-Mendi astea: Mikel Saez de Urabain eta Karlos Veiraren bideo emanaldiak. "Líneas de hielo" eta "Alpinismo extremo".

23, ostirala

-Mendi astea: Jon Maroto, Iñaki Alvarez eta Xabier Ormazabalaren diapositiba emanaldia. "Huascaran".

-Santa Zezilia: Gauoko 10etan herriko musikariek jaialdia eskainiko dute Zelai Arizti aretoan.

-Gau Giroan: hamaiketatik aurrera Internet Zumarragako Informatika zentruan eta grafologia liburutegian.

24, larunbata

-Santa Zezilia: 1etan Musika Bandaren kalejira.

-Mendi astea: Ostadarren Batzar Nagusi Orokorra.

-Gau Giroan: hamaiketatik aurrera eskubaloia eta dantza kiroldegian.

25, igandea

-Mendi astea: Ibilaldia Gorbeia Mendiaren inguruetan.

Bazkaria Murgian.

30, ostirala

-Gau Giroan: hamaiketatik aurrera Internet Zumarragako Informatika zentruan eta grafologia liburutegian.

Erakusketak:

Azaroaren 4ra bitartean: Mairi elkarteko eskularen erakusketak Itarte Etxean.


9tik 18ra Euskotrenen Urolako trenari buruzko erakusketak Itarte Etxean.

Azaroaren 15etik 25 era: Homosexualitateari buruzko erakusketak Juan de Lizarazu aretoan.

22tik abenduaren 2ra, Kilimatrakak antolatuta, Kamerungo artesian erakusketak Itarte Etxean.

Hitzaldiak:

Azaroak 15, 22 eta 29an, arratsaldeko 7etatik 8,30ak arte Zumarragako Udal liburutegian. "Zergatik kontaktzen ditugu ipuinak?", guraso eta haur hezkuntzako hezitzaileei zuzendua.



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA
Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA



Joxe, hemendik aurrera, betikoa, 38koa nahi baina halakorik ezean, 48koa hartu behar. Ondo ospatu urtebetetzea.



Aitor, hori da hori irrifarrea! Ez dirudi Bin Laden non demontre ezkutatzan den jakiteak gehiegi kezkatzen zaituenik. **Zorionak!**



Jon, Realekoa ala Athletic-ekoa al zara? Egin zaitez Realzale, aita pixka bat ernegatzeko siki-**r**a! **Zorionak** eta ondo pasa!



Ainhoa, a zer nolako irrifarre gozoa! Ez dirudi kariesik duzunik! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Alain, txisteren bat kontatu dizute ala atzekoa kilimak egiten ari al zaizu? **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Amaia, oso guapa zaude argazkian, baina ia beste argazkiren bat ekartzen diguzun, hau laupabost aldiz jarri dugu eta!



Amaia, ez zaizu ez ikusten oso alaia... Urtebetetze zaharragoa izateak tristetu egin al zaitu? **Zorionak** eta ondo pasa!



"A Dios rogando y jaleo **Armando!**" **Zorionak** eta segi orain arte bezain saltsero, bestela familitik botako zaituzte eta!



Begoña, **zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna familiakoen eta lagunenez partez.



Borja, zu bai alperra! Hila lau jai egun jarraian ditugula hasi dugu eta hala ere triste! **Zorionak** eta ondo pasa!



Cristina, mototxa duzun aldean pisu gehiago duzunez, burua alde horretara erori beharko litzazuke! **Zorionak!**



Ebaristo, hori da hori maltzur aurpegia jarri zenuena! "El Padrino" filmaren 4. atalean parte hartu behar omen duzu... **Zorionak!**



Eider hitzak ita-lieraz ahatea esan nahi omen du, baina ez duzu ahate itxura handirik! **Zorionak** eta ondo ibili!



Enrique, garuneko alde batzuk besteak baino garatuagoak ditugula esaten dute eta zure kasuan behintzat hala dela dirudi!



Esteban, hori da hori irrifarrea! Dirudinez gaurko meza Realaren partidua baino hobea izan da! **Zorionak!**



Irati, ea zure urtebetetze eguneko opariek aurpegia zertxobait alaitzen dizuten! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Joaquin, paparaziei argazkirik ez ateratzeko esaten ari al zara? Beti gorbatarekin... ez al dizu lepoa estutzen? **Zorionak!**



Jokin, salgai dauden markuetan egoten diren argazkietako bat dirudi zureak! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Zuek bai jakin! Ipotxak ehundaka urte bizi direnez, errentagarria ateratzen ari zaizue David-en fitxaketa! Realari hobe joango litzazioke zuek bezalako manager pareta izango balu! Jarriozue aldamenean auto bat ipotxari gauetan parranda egitera joan dadin. **Zorionak** Jone eta Mentxu!



Jose Inazio, ea lehengusu afarientan formalago ibiltzen zaren, kiroldegiko medikuak exenplu ona eman beharko luke eta!



Josetxo, zure argazkia sartu nahi genuen, baina Joseba Sarrionandiarena jarri dugu. **Zorionak** eta asko ikasi!



Kontxi, lepokoa aldatu beharko duzu George Bushen erasoaldi bat pairatu nahi ez baduzu! **Zorionak** eta ondo ibili!



Mari Carmen, eskerrak Doña Rogelia eta Nicol ez dituzun korura eramaten... **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Zu al zara trikitalariek kantatzen duten abestiko **Maria Jesus?** **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Miguel Angel, hi bizi haiz hi! Zure argazkiak ikusita, badirudi Etxeberrin ordu gehiago ematen dituzula etxean baino! **Zorionak!**



Mikel, "Conde Lequio" baino hobe bizi haiz, motel! Ea egunen batean lanean ateratako argazkiren bat ekartzen diguzun!



Mikel, joan zaitez komunera praketatik behera egin baino lehen! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Nora, itxi ezazu buzoia batenbategen antraxa duen gutunen bat sartu aurretik! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Pili, urtebetetze egunean ondo pasatu baina formal ibili! Ez al dizute sekula esan Cruela de Villen antza duzula?



Nola demontre eman diote gidatzeko baimena halako aurpegia duen bati? **Iñaki**, Jesulinen autoeskolara joan al zara? **Zorionak!**



Jon, oraingoan ere lasai asko hago! **Zorionak** eta ea hurrengoan Andaluziatik neskaren bat ekartzen duzun, baduk garaia eta!

Aitor Gonzalez: "Datorre Kelmeko taldeburua izang"

Aitor Gonzalez txirrindularia azken Tourreko etapa bat irabazteko zorian izan zenean, Barrenkale kaleko bizilagun bati baino gehiagori duela ia hogei urteko oroitzapenak etorriko zitzaizkion burura seguraski. Izan ere, denboraldi bikaina burutu duen 26 urteko Kelme taldeko txirrindulariak Urretxuko Barrenkalen eman zituen bere haurtzaroko urteak. 11 urterekin bere aitak Alacanten untxi-granja bat ireki zuen eta bertara eramane zuen familia bizitzera. Ordutik Aitor bertan bizi da eta bertan egin zen txirrindulari, baina profesioaletara pasa zen arte urtero etortzen zen Urretxura bere senitartekoak bisitatzen eta haurtzaroan bizitakoak gogoratzen. Urretxun igarotako bere haurtzaroz, hain zuzen ere, eta txirrindularitzaz hitz egiten izan gara Aitorrekin.



Urretxukoa ala Zumarragakoa al zara?

Gehienok bezala Donostian jaio nintzen eta ondoren aitak Zumarragan erroldatu ninduen, baina Urretxun bizi nintzen Alacantera etorri nintzen arte. Urretxu-Zumarragara itzultzen naizenean askotan egiten didate galdera hau eta nik Urretxukoa edo Zumarragakoa izatea berdina zaidala esan ohi diet. Hain hurbil dauden bi herri izanik, niretzat ia herri bera dira.

Zer oroitzapen dituzu Urretxu-Zumarragan eman zenituen urteez?

Haurtzaroko oroitzapenak izanik, oroitzapen onak dira, noski. Egun Gainzuri denean ikasten nuen eta lagunekin kalean jolasten eta bihurrikeriak egiten ibiltzen nintzen. Etxeazpian futboleko jolastu ohi genuen eta bizilagunak gurekin hasarrazten ziren, baloiarekin garajeetako burdinezko ateak jotzen genituzenean sekulako zarata ateratzen baikenuen. Bestalde, eskolan euskara ikasten aritu nintzen eta Alacantera joan aurretik dena ulertzeko gai nintzen. Oraindik ere dexente ulertzen dut eta Unai Osari haurra zeneko euskarazko liburu batzuk eskatu nizkion euskara pixka bat praktikatzen.

Denon den, nire neska-lagunak nik baino gehiagotan gainbegiratu dituela uste dut.

"Ea datorren denboraldian mendekua hartzeko aukera dudana. Holandako klasika batean izango balitz, hobe!"

Sarritan etortzen al zara Urretxu-Zumarragara?

Profesioaletara pasatu nintzen arte, urtero joaten nintzen, senitarteko gehienak Urretxun, Zumarragan eta Azpeitian baitituz. Baina orain neska-lagunarekin bizi naiz, denboraldia luzea eta gogorra da eta nekeza egiten zait bertaraino joatea. Dena den, badira urte batzuk joaten ez naizela eta egia esan behar badut Urretxu-Zumarraga faltan somatzen ditut. Amona gurekin da egun hauetan eta behar bada Gabonak aldean nik eramango dut herrira bueltan, honela herria nola dagoen ikusteko eta lagunekin egoteko aukera izango dut.

Noiz hasi zinen bizikletan ibiltzen?

Alacantera joan nintzenean hasi nintzen serio xamar ibiltzen. Aitarekin ateratzen nintzen asteburuetan eta gustatu zitzaidanez, astean zehar ere ibiltzen hasi nintzen. Halako batean alebin mailako lasterketa batetan parte hartzea erabaki eta irabazi egin nuen. Hori dela eta, lasterketetan jarraitzea erabaki nuen. Aita izan zen txirrindularitza munduan murgildu ninduen, oso zaletua baita. Ni jubentzetan ari nintzenean, beterano mailako Espainiako txapelduna izan zen eta sekulako lehiak izaten genituen. Egun ere noizean behin aitarekin ateratzen naiz eta erasotu egiten dit! Badaezpada ere ez naiz taldeko arroparekin joaten, aitak lotsagarri uzten banau inork ezagutu ez nagan!

Zein taldetan ibili zara urte hauetan guztietan?

Profesioaletara pasatu arte Gisbert, SIS, Caja Rural eta Kelmeren afizionatu mailako taldean aritu nintzen. SIS taldean bi urte eman ondoren, Nafarroako Caja Rural taldera joatea erabaki nuen, honela iparraldeko lasterketetan aritzeko

n Giroan o naiz”

aukera bainuen. Izan ere, talde profesio-
naletako zuzendariak lasterketa hauek
jarraitzen dituzte batez ere. Caja
Ruralen urtebete eman nuen eta ondoren
Kelme taldera joan nintzen. Urte erdi
eman nuen Kelmeren afizionatu maila-
ko taldean eta beste urte erdia Kelmeren
bigarren taldea zen Aviancarekin, 98an.
99az geroztik Kelme taldean nago.

Gogorra izan al zen profesional mai- lara egokitzea?

Requejo eta biok pasa ginen,
esan bezala, denboraldiaren bigarren
erdialdean. Oso gogorra egin zitzaigun,
hilabete eta erdi geldirik egon ondoren
pasa baikinen, baina banekien denentzat
ere gogorra izaten dela eta denborarekin
moldatuko nintzela.

Iaz jada ondo ibili zinen, baina aurten sekulako denboraldia burutu duzu...

Bai, denboraldi hasiera oso
ondo prestatu nuen eta Murtziako itzu-
lian erlojupekoa eta sailkapen orokorra
irabaztea lortu nuen. Astebeteko beste
lasterketa askotan, gainera, aurrean ibili
naiz: Valentziako itzulian oso ondo aritu
nintzen, baina egun batean kale egin
nuen, Voltan laugarren egin nuen,
Nazioarteko Kriteriumean 9. sailkapen
orokorrean... Bestalde, Tourreko 8. eta-
pan bigarren gelditu nintzen.

Tourrekoa golpe latza izango zen...

Egun hartan oso indartsu nen-
goen, baina ihesaldian Rabobank talde-
ko txirrindulariak zeuden eta ezin izan
nuen denekin, azkenean Erik Dekkerrek
sprintean irabazi zidan. Ea datorren den-
boraldian mendekua hartzeko aukera
dudan, holandako klasika batean, euren
etxean, izango balitz, hobe! Bestalde, bi
egun beranduago erorikoa izan nuen eta
erretiratu egin behar izan nintzen, sail-
kapen orokorrean hamargarrena nintze-
la. Pena handia eman zidan, oso indar-
tsu bainengoen eta Oscar Sevillari
laguntzera joan nintzen arren, nire burua
frogatzeko gogoia bainuen. Izan ere,
lehenengoz hiru astetako lasterketa

batean nengoen eta
bukatzeko sekulako
gogoia nuen.

Nolako txirrindularia zarela esango zenuke?

Erlojuaren aurka
ondo nabil eta afizionatue-
tan bitan irabazi nuen
Espainiako erlojupeko las-
terketa, baina aurten astebe-
teko lasterketetan ere ondo
ibili naitekeela ere ikusi dut.
Beraz, hobetzeko aukera
dudan erlojuaren aurkako
espezialista naizela uste dut.
Voltan maldan gora ere ondo
ibili naitekeela ikusi nuen eta ez
dakit noraino hel naitekeen.
Taldeko zuzendariak ere hau ikusi
dute eta datorren urtean Girora tal-
deburu bezala joango naizela esan
didate.

Bukatzeko, Urretxu-Zumarragarrei zer edo zer esan nahi al diezu?

Amonak esan zidanez,
Tourrean Pirinotara joan behar zuten
herriko hainbat lagunek ni animatzeko

pankartak prest omen zituzten, baina
ez nintzen Pirinotara heldu. Eskerrak
eman nahi dizkiet eta ea datorren urte-
an Pirinotara heldu eta pankartak ikus-
teko aukera dudan!





Juan Mari Areitio, "Bizkai"

Juan Mariren aitona eta aita Urretxura bizitzera etorritako bizkaitarrak ziren eta herrian "Bizkai" ezizena eman zieten. Juan Marik, Urretxun jaio zen arren, aita eta aitona ezizena hartu zuen eta ondo irabazia du, Athletic-zale amorratua baita. Oinarrizko hezkuntza Urretxuko "nazionaletan" ikasi zuen eta ondoren hainbat lekutan lan egin du: Alkorta-Mendizabalen, udaletxean, Graficas Iparragirren... Egun Irizar enpresan garbiketa lanak egiten ditu Elurra enpresarentzat.

Zezenzaletasuna Jose Luis Fernandez osabarengandik datorkio. Honek festetan ekartzen ziren zezenak zaintzen zituen eta Juan Mari txikia berarekin eramanten

zuen. Juan Marik esan digunez, "Azken 25 urtetan, urtero, Azpeitiko zezenketetara joan naiz eta Tolosa, Bilbo eta Iruñeara ere joaten naiz. Horretaz gain zezenketak iragartzen dituzten kartelen bilduma egiten dut eta egun 1.000 kartel inguru ditut". Horretaz gain, toreatzaile lanak ere egina da. 1990ean Gernikako Arbola plazan eskaini zuen erakustaldia sonatua izan zen!

Zezenketez gain, pilota ere oso gustukoa du eta duela hamar urte inguruko Gabon Kopan epaile lanetan hasi zen. Aurtengo ekainean epaile federatu titulua eskuratu du eta irailaren 21ean bere estrainaldi ofiziala izan zuen Zumarragako Beloki pilotalekuan. Epaileak berehala hartu behar omen du erabakia, zalantza izpirik izan gabe, eta "Bizkai"k hala egiten du: "Erabakia zirt edo zart hartu behar da eta nik hala egiten dut". Bere ametsa egunen batean profesionalen partidu bateko epailea izatea da.

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Futbolaria, Athletic-ekoa, noski.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Lagunekin "txikitioak" hartzea eta frontoira joatea.

-Bizitzeko toki bat?

Urretxu.

-Gustuko pilotaria?

Retegi II eta Beloki.

-Titin ala Goñi?

Titin.

-Gustuko pilotalekua?

Zumarragakoa oso polita da, baina kantina falta zaio.

-Zezenketa tortura da.

Nire ustez ez da tortura. Zenzenketetan erabiltzen diren zezenak horretarako jaio dira eta hobekien zaintzen diren animaliak dira.

-Gustuko toreatzailea?

Julio Robles oso gogokoa nuen eta ezagutzeko aukera izan nuen gainera. Lagun baten koinatua zen eta behin Burgo de Osman berarengana joan eta Zumarragako sendiaren izenean eskuminak eman nizkion. Arratsalde horretan bi belarriak eta buztana moztu zituen eta belarri bat niri eman zidan. Egungo toreatzaileen artean, Enrique Ponce dut gustukoena.

-Jesulin ala El Juli?

El Juli.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

-Egindako azken oparia?

Ez dut gogoratzen.

-Eta jasotakoa?

Nire alabaren mutil lagunaren amak oparitutako Fatimako amabirjiñaren irudia eta berari buruzko bi liburu. Betidanik oso gustukoa izan dut Fatimako amabirjiña eta egunen batean bertara joango naiz.

-Data bat?

1986ko urriaren 4a. "Arenillas"ek eta "Desplantes"ek desafioa izan genuen Lasturren. Lehenengoz zezen baten aurrean jarri nintzen.

-Neska eta mutil izen bana?

Jon eta Maria.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

El Diario Vasco.

-Gustuko telebista saioa?

Fronton.

-Bereziki gorroto duzuna?

Gran Hermano tontokeria iruditzen zait.

-Liburu bat.

Angel Maria de Leraren "Los clarines del miedo".

-Filme bat.

West Side story.

-Gustuko abestia?

Asko atsegin ditut, baina bat aukeratzekotan, "Una furtiva lacrima".

-Soinu bat.

Eskusoinuarena.

-Usain bat.

Belar moztuarena.

-Janari bat.

Makailoa saltsa berdean, egitea atsegin dut gainera.

-Ura ala...

Ardoa.

ZELETA BARAZKIAK




KONPROMISOA eta ERANTZUNA

Ontziratze eta manipulatzeko instalazio berriak inauguratu ditugu.



URRETXUKO EROSKIN AURKI DITZAKEZUE GURE PRODUKTUAK

Behi Esnea



Ohizko sukaldeko benetako zaporea lortzeko aproposena

Zaporeduna

ESKAINTZA BEREZIA

Esnezaleen helbideak xorrotik moztearekin bakarrik.
Eskatu oparia zure dendan:

- a) Diska egalaria: 10 helbide
- b) Kometa: 15 helbide
- d) Aterkia: 25 helbide

Promozioa edukiak bukatu arte



Behi Esnea produktoreak



Agerre baserria
Tel. 943-72 40 36
Urretxu, Gipuzkoa
B.Z. 95.4.00005/SS NF.A



Iztueta Elkarteak
943-88 41 36 / 943-88 48 60
Lazkaomendi, Lazkao, Gipuzkoa
B.Z. 95.4.00003/SS NF.A



Agote Etxeberri baserria
Au/Garlin 17, Beasain
Gipuzkoa

IKER

**SUKALDE
ERAKUSKETA**

FAGOR



Udala enparantza, z/g.

☎ 943 79 00 43

20500 ARRASATE

Ipeñarrieta, 5

☎ 943 72 50 75

20700 URRETXU